



LEZON

05'

MAIATZA 2018 MAYO

Kultur lokal berriak
ateak zabaldu ditu

*Inaugurado
el nuevo
local cultural*





Jesus Mari Martiarena
Lezoko alkatea

Herria hobetzen jarraitzeko proiektu ugari

Dagoeneko joan da 2018. urtearen lehen herena eta, beraz, gure aurtengo proiektu batzuk gauzatuta ditugu eta besteak forma hartzen doaz.

Azken aste hauetan inauguratu berri dugu kultur lokal berria. Bertara lekualdatu diren taldeekin elkarlanean landutako proiektuaren emaitza izan da eta lokal berriak ekarriko dituen etekinez herritar guztiok gozatu ahal izango dugu urtean zehar taldeek eskaintzen dizkiguten hainbat eta hainbat ekitalditan.

Baina, azken hilabeteetan egindakoak begirada zabalagoa eskatzen du. Besteak beste, LED markagailua jarri da kirolegian eta herritarrok Duchenne gaixotasuna ikertzeko proiektu solidarioarekin bat egin dugu.

Esan bezala, etorkizunera begira beste proiektu garrantzitsu batzuk ditugu eskuartean, eta guztiak zuen ongizatea bermatzeko eta bizi-kalitatea hobetzeko helburuarekin gauzatuko ditugu.

Kirolegia Altzateko igerilekuarekin eta Altamira auzoarekin lotuko duen igogailua eraikiko dugu, herriko lehena izango dena, Lezoko irisgarritasuna hobetzen jarraitzeko urratsak emanet.

Horri gehitu behar zaio Altamirako auzoari lotuta garatu nahi dugun proiekta. Proiekta herritarrekin elkarlanean gauzatzeko eta auzotarren iritzi eta ekarpenak jasotzea parte hartze prozesua abiaraziko dugu. Altamirako bizilagun guztiak zaudete gonbidatuta proiektu honetan parte hartzen; guztion artean Lezo herri hobia egingo dugulako uste osoa baitaukagu.

Diversos proyectos para seguir mejorando Lezo

Ya se nos ha ido más de un tercio de este año 2018 y, por tanto, algunos de nuestros proyectos para este año están realizados y otros van cogiendo forma.

Hace apenas unas semanas que inauguramos el nuevo local cultural. Este nuevo centro cultural es el resultado del proyecto elaborado en colaboración con los grupos que ya se han instalado en él y de cuyos frutos podremos disfrutar toda la ciudadanía gracias a las diversas actuaciones que nos ofrecen a lo largo del año.


Pero, lo realizado estos últimos meses requiere un vistazo más amplio. Entre otras cosas, se ha puesto un nuevo marcador LED en el polideportivo y las y los lezoarras hemos colaborado con el proyecto solidario para la investigación de la enfermedad Duchenne.

Como se ha mencionado, tenemos entre manos otros proyectos importantes de cara al futuro con el objetivo de garantizar vuestro bienestar y mejorar vuestra calidad de vida.

El siguiente gran proyecto tiene el objetivo de hacer Lezo más accesible. Construiremos un ascensor, el primero del municipio, dando pasos para continuar mejorando la accesibilidad de Lezo.

A eso debemos añadir el proceso de participación ciudadana que impulsaremos en el barrio Altamira para recoger las opiniones y aportaciones del vecindario y elaborar de manera conjunta el proyecto para la mejora del barrio. Tenemos la firme creencia de que entre todas y todos haremos un buen trabajo y lograremos hacer de Lezo un municipio mejor.

Poltsa konpostagarriak eskuratzeko makina jarri da Kirolegian Se ha instalado una máquina expendedora para la recogida de bolsas compostables



ORDUTEGIAK HORARIOS

Neguko ordutegia Horario de invierno

Astelehenetik ostiralera De lunes a viernes: 08:15 - 21:45
Larunbatetan Sábados: 08:30 - 14:00 | 16:30 - 20:00
Igandetan Domingos: 09:00 - 13:30

Udako ordutegia Horario de verano

Astelehenetik ostiralera De lunes a viernes: 09:00 - 21:00
Larunbatetan Sábados: 09:00 - 13:30

PARTE HARTZE PROZESU BATEN BITARTEZ ERABAKIKO DA ALTAMIRA AUZOAN ZEIN HOBEKUNTZA GAUZATU



Herria hobetzen jarraitzeko proiektuak landuz darrai udal gobernuak. Kasu honetan, Altamira auzoaren txanda iritsi da eta proiektua lantzko, bertan zer egin erabakitzeko, parkeari buruzko proposamenak jasotzeko eta bereziki auzotarren nahiak, beharrak eta iritziak ezagutzeko parte hartze prozesua abiaraziko du Udalak.

Parte hartze prozesua auzoko bizilagunekin egingo da, horrela egitea erabaki baitzen parte hartze prozesua zehazteko eta lantzko egin ziren bileretan.

Parte hartze prozesua maiatzaren 12tik 27ra bitartean

Bizilagunek bide ezberdinak izango dituzte ekarpen eta proposamenak egiteko. Batetik, eskuorria bidaliko da Altamira auzoko etxe guztieta eta, hori bete ondoren, Altzaten eta auzo elkartean ezarriko diren postontzietan utzi beharko da. Halaber, maiatzaren 16an karpa ezarriko da Altamiran eta maiatzaren 23an tailerra egingo da auzo elkartean. Gainera, udal webgunearen bitarte online inuesta bat erantzun ahal izango da.

Auzoa hobetzeko 40.000 euroko diru partida muga ezarri du Udalak eta, bestalde, parkea berritzeko proposamenak ere bilduko dira parte hartze prozesu honen bitartez. Jasotako proposamenen bideragarritasuna aztertu ondoren proiektua landu eta zehazki zer egingo den jakinaraziko da.

Mejoremos el barrio de Altamira entre todas y todos

El Ayuntamiento de Lezo sigue llevando a cabo proyectos que mejoren el día a día de la población. Esta vez es el turno del barrio Altamira, y qué mejor que el propio vecindario del barrio para proponer y decidir qué hacer.

Con el objeto de conocer y recoger las ideas, opiniones, necesidades y propuestas de las personas que viven en el barrio y elaborar junto a ellas el proyecto de mejora de Altamira, el Ayuntamiento va a llevar a cabo un proceso participativo que tendrá lugar entre el 12 y el 27 de mayo. Mediante este proceso se recogerán propuestas para mejorar el barrio y el parque a fin de convertir este último en un espacio agradable para todas y todos.

CÓMO PARTICIPAR

1. Rellenando el folleto y depositándolo en los buzones habilitados en Altzate y la Asociación de Vecinos
2. Acudiendo a la carpa informativa que se colocará en el barrio el 16 de mayo
3. Participando en el taller que tendrá lugar el 23 de mayo en la sede de la Asociación de Vecinos
4. Respondiendo una encuesta online

RECAUDACIÓN DE FONDOS PARA LA INVESTIGACIÓN DE ENFERMEDADES RARAS

El Ayuntamiento y toda la ciudadanía de Lezo se ha involucrado en colaborar con la Asociación Ayuda Enfermedades Raras Solidaridad y Esperanza, que recauda fondos para la investigación de enfermedades raras. Con este motivo, se llevaron a cabo varias charlas y un evento solidario en 2016 para dar a conocer la enfermedad de Duchenne entre la ciudadanía y solidarizar a las personas con los niños que padecen esta enfermedad. Este año se ha colocado un contenedor solidario en el polideportivo Bekoerrotua y Lezo ha colaborado en el proyecto internacional "Ruta a la esperanza, todos por la vida", que llevó a Sergio Gómez, presidente de la asociación, desde Azpeitia hasta el Vaticano, trayecto que realizó en bicicleta en 19 días, con el objeto de recaudar fondos y visibilizar a los niños que padecen la enfermedad de Duchenne.



IPARRALDEKO HAURREN BISITA AURTENGO INAUTERIETAN

Aurtengo inauterietan Lapurdiko Lekorne, Mendiondo eta Gerezietako ikastoletako haurrak hurbildu ziren Lezora, bataz beste 45 ikasle. Udaletxeen Udalaren ongi etorria jaso ondoren Trapujaleren dantzan parte hartu zuten, izan ere, aldez aurretik dantza ikasita zuten beren eskoletan.

CAMPAÑA DE SENSIBILIZACIÓN E INFORMACIÓN Y TALLERES PARA PRODUCIR MENOS RESIDUOS

Con objeto de mejorar la cantidad y calidad de los residuos que se recogen de forma selectiva e incidir

en las costumbres de la ciudadanía se llevó a cabo una campaña de información y sensibilización entre enero y febrero. De ese modo, 2 técnicos de medio ambiente e informadores resolvieron las dudas de las y los lezoarras en varios puntos de recogida del municipio. Asimismo, en febrero se realizaron talleres especiales en el mercado sobre cómo generar menos residuos. Dentro de unas semanas, en junio, se llevará a cabo una sesión de repaso.

LED MARKAGAILU BERRIA KIROLDEGIAN

Udalak kirolegian markagailua berria jarri du. Honek, bideoak eta irudiak txertatzeko aukera eskaintzen du. Bestalde, markagailua igotzeko eta jaisteko sistema ere berritu da eta, hori dela eta, lekuz mugitzeko aukera ere eskaintzen du.



ACTUACIÓN DE KUKAI Y PRESENTACIÓN DEL LIBRO 'AGIRRETXETARRAK' EN LA XXXII^a EDICIÓN DE LESOINU

La edición de este año de Lesoinu trajo consigo numerosos eventos para todos los gustos. Participaron tanto grupos locales como extranjeros y, además de las actuaciones musicales, también se ofrecieron diversas actividades y talleres de formación. En esta edición se homenajeó a la familia de dulzaineros Agirretxe mediante la presentación del libro-CD 'Agirretxetarrak Gipuzkoako Dultzainaren Testigantza'. Además, la XXXII^a edición de Lesoinu trajo a Lezo la actuación de Kukai Dantza Taldea.

MARTXOAREN 8AN EMAKUMEK PLANTO

Emakumeen Nazioarteko Egunean goizeko 11:00etan elkarretaratze jendetxea egin zen Saldisen. Lezoko emakumeek ez zuten huts egin bortizkeria matxista, diskriminazioa eta berdintasun eza salatzeko munduko hainbat herrialdetan deitutako hitzorduan. Sorginak

eta Gaxuxako kideak, Oroitzene euskaltegiko, anbulatorioko eta udal langileak, Tipi Topako emakumeak, dendariak, ikasleak... adin eta egoera ezberdineko emakumeak bildu ziren Saldise plazan.



LEZO RECOGE DE MANERA SELECTIVA EL 70% DE SUS RESIDUOS

Tras el cambio de sistema realizado en septiembre, según los datos de los primeros meses del año, Lezo recoge de manera selectiva más del 70% de los residuos generados mediante el sistema de contenedores.



KALITATEZKO KULTUR EMANALDIAK

Otsaileko azken igandean lezoarrek Xake Produkzioak konpainiaren lehen obraz gozatu ahal izan zuten Gezalan. Obra hori "Mami Lebrun" izan zen eta, honek, martxoko lehen astean XVIII. Donostia saria jaso zuen. Horretaz gainera, "La Zanja" antzerkia eskaini zen apirilaren 15ean, ospe handiko Titzina Teatro konpainia kataluniarraren eskutik.

LEZO SE SOLIDARIZA CON CATALUÑA

El Ayuntamiento de Lezo ha aprobado una declaración institucional en la que manifiesta su preocupación e inquietud ante la situación que se está viviendo en Cataluña. Asimismo, ha mostrado su apoyo y solidaridad tanto a las personas detenidas y encarceladas, como a sus familiares y organizaciones políticas y sociales a las que pertenecen, así como a toda la sociedad catalana, exigiendo su inmediata puesta en libertad.

ZARATA, ESKOLA AGENDA 21EAN PROTAGONISTA

Lezoko Herri Eskolako, Institutuko eta Pasaia-Lezo Lizeoko ikasleek urtero Eskola Agenda 21 egitasmoan parte hartzen dute eta ikasturte honetan zarataren gaia lantzen ari dira. Lehen fase batean, gaiari buruz sensibilizatu eta ikastetxeen egoera azterten aritu dira haur eta gazteak. Ondoren kalera irtengo dira herriaren diagnosi alternatiboa egiteko. Azkenik, iraunkortasun eta ingurumen kontzientzia lantzko irteera ezberdinak egin eta egingo dituzte ikasturtea amaitu bitartean. Bukatzeko, egindako azterketen berri emango diete udal ordezkariei urtero ospatu ohi den foroan.

NUEVO CONVENIO PARA LA EJECUCIÓN DEL SIGUIENTE TRAMO DEL BIDEGORRI

La Diputación y los municipios de Oarsoaldea han reforzado, una vez más, la colaboración interinstitucional mediante la firma de un nuevo convenio que recoge actuaciones por valor de 2 millones de euros en 2018.

Gracias al acuerdo firmado por el alcalde Jesus Mari Martiarena, Lezo contará con una subvención de 230.538 euros este año para la ejecución de la siguiente fase del bidegorri que unirá Lezo con Donibane. La Diputación Foral se hará cargo del 85% del coste de las obras y el 15% restante lo aportará el Ayuntamiento de Lezo.

FURGOBARATZAK URTEKO LEHEN BISITA EGIN DU

Apirilaren 25ean furgobaratzak urteko lehen bisita egin zuen. Horretan, baratzeen arduradunei aholku eta gomendioak eman zitzaizkien baratzeei ahalik eta etekin handiena atera asmotan. Tomatearen inguruko tailer berezia ere eskaini zen, izan ere, udaberria da fruitu hau landatzeko urteko sasoirik aproposena.



KULTUR LOKAL BERRIAK ATEAK ZABALDU DITU INAUGURADO EL NUEVO LOCAL CULTURAL



Apirilaren 27an egin zen kultur lokal berriaren inaugurazioa herritar guztientzat irekia izan zen ekitaldi batean. Udal ordezkariez gain, bertara lekualdatu diren kultur taldeek ere parte hartu zuten irekiera ekitaldian. Beren esker ona adierazteko Murixka Dantza Taldeko kideek agurra dantzatu zuten eta Lezoko Desfile Taldekoek haien trajeak eta beren lana islatzen duten argazkiak ikusgai jarri zituzten.

Udal gobernuaren helburu nagusietako bat izan da lehen egunetik herrian kultura sustatzea eta, ildo horretatik, iaz lokal berri bat erosi zuen herriko kultur taldeen eskariari erantzuteko. Kultur taldeekin elkarlanean eta beren behar eta iritziak jasoz, lokala eraberritzeko proiektua landu zen. Horren harira, urtarrilean hasi ziren inauguraratu berri den kultur lokala eraberritzeko lanak.

2018an gauzatzeko proiektu nagusien artean zegoen kultur lokalaren egokitzapena, eta urtea hasi eta lau hilabetera Udalak bere hitza bete du.

Modu honetara, gure herriari bizitasuna emateko horren garrantzitsuak diren kultur taldeen behar eta eskariei erantzuna ematea lortu da, izan ere, lokala eraberritzeko obrak apirilean amaitu ziren eta dagoeneko taldeak lokal berrira lekualdatu dira. Proiektu honen bitartez, gainera, Kale Nagusia berpiztu nahi da eta sinergiak sustatu nahi dira herriko kultur talde ezberdinaren artean.



El pasado 27 de abril fue inaugurado el nuevo local cultural. En el acto de inauguración estuvieron presentes el alcalde y miembros del equipo de gobierno y representantes de los grupos culturales Murixka Dantza Taldea, Orratx Antzerki Taldea y Lezoko Desfile Taldea, además de las y los lezoarras que quisieron acudir a presenciar el acto y, de paso, conocer el nuevo local.

Una vez realizado el protocolario corte de cinta, miembros de Murixka Dantza Taldea bailaron un aurresku y Lezoko Desfile Taldea expuso varios trajes y un montaje compuesto con fotografías del grupo como muestra de agradecimiento al Ayuntamiento por la adquisición y remodelación del nuevo local cultural que permitirá a los grupos locales contar con un espacio mucho más adecuado para trabajar en respuesta a sus necesidades y almacenar sus respectivos materiales.

De este modo, además de responder a una petición que viene de años atrás, promover y proteger la actividad cultural que realizan los grupos de Lezo, también se ha querido revitalizar la calle creando un nuevo núcleo cultural en Lezo, que permita, además, crear e impulsar sinergias y nuevas oportunidades y proyectos entre los grupos.



ZEIN IRITZI DUTE TALDEEK? ¿QUÉ OPINAN LOS GRUPOS?

ORRATX ANTZERKI TALDEA BEGOÑA AZPIAZU

"Lokal berria oso ondo dago, nahiz eta, guk egiten dugun lanerako apur bat txikia gelditzen zaigun, izan ere, entseguak Gezalan egitera ohitura gaude, baina ziur moldatuko garela".



MURIXKA DANTZA TALDEA IRATI SAIZAR

"Lokal berria oso polita iruditu zaigu. Ispiluak eta guzti jarri dituzte, eta hori dantzariok asko eskertzen dugu. Oraindik ez gara bertara guztiz lekualdatu, seguruenik irailean hasiko gara bertan lanean eta gogotsu gaude. Gainera, komunak eta dutxak ditu, orain arte ez genuen zerbaiz".



LEZOKO DESFILE TALDEA AITOR LEONET

"Hau hazi bat besterik ez da, kulturaren alde gehiago egin behar dugu. Honen bitartez, taldeen arteko sinergia bilatzen da, horrela, herriko kultura sustatzeko. Bukatzeko, honekin aurrera pauso handia egin da".



ALDERDI POLITIKOAK



EAJ-PNVk herritarren interesen defentsan lan egiten du ordezkaritza duen erakunde guzietan. Pertsonen ongizatea ardatz hartuta, proiektu ezberdinak sustatu ditugu legealdi honetan. Madrilen lortutako akordioari esker ari dira tren geltokiko lanak gauzatzen eta Foru Aldundiaren konpromisoari esker, aurten, bidegorriaren 2. zatiari ekingo zaio.

Proiektu horien zein udaletik aurrera eramandako eta eramango ditugun egitasmoen bitartez lezoarrei aukera berriak eskaini nahi dizkiegu eta beren egunerokotasuna eta bizi kalitatea hobetu nahi ditugu. Helburu horrekin dihardugu lanean lehen egunetik, lezoarrei herri irisgarriagoa, atseginagoa eta beren beharrei egokitutakoa eskaintze asmoz.

Mejorar la calidad de vida de la ciudadanía es el principal cometido de EAJ-PNV en todas las instituciones. Partiendo de esa premisa se han logrado y se están realizado diversos proyectos esta legislatura: obras en la estación de Renfe gracias al acuerdo alcanzado en Madrid, construcción del bidegorri, de la cubierta, del primer ascensor del polideportivo a Altamira... todo ello con el objeto de ofrecer nuevas alternativas y un municipio más accesible y amable.



Apirilaren 12an, Madrilgo Kontu Auzitegian epaitu zituzten Ainhoa Intxaurrendieta eta Iñaki Errazkin erraustegiaren proiektua gelditzeagatik. Haien gainean zigor eskaera oso gogorrak daude, 41.100 milioi euro arteko zigorrek eskatzen dizkiete.

EAJ-PSEren gobernuak marra guztiak gainditu eta salaketa jarri diete. EAJko eta PSEko arduradunek horrela jokatu izana ez da kasualitatea. Erraustegiak aurkakotasun handia dauka gizartearen, osasunean zein ekonomian izango dituen ondorio larriengatik. Erraustegiarena gaindimentsionatutako proiektua da eta zen, egun txikiagoa eraikitzen ari direla ikusi besterik ez dago. Elite ekonomikoen interesak kolokan jarri ziren proiektua geratzean. Horixe da, hain justu, barkatzen ez dietena. Elite ekonomikoen gainetik jendearen interesak jartzea ez digute barkatzen. Ez digute barkatzen erabakiak hartzea. Gauzak beste era batera egiten ausartzea ez digute barkatzen.

Joko zikina eta mendekua baino ez dago haien aurka horrelako zigor eskaera bidegabek egiterakoan.



Cuando esta publicación llegue a nuestros buzones, una de las demandas históricas de los lezoarras en general y de los vecinos de Altamira en particular como es la accesibilidad a este barrio estará en vías de solución a través de la construcción de un sistema de ascensores y otras actuaciones afines. Esta iniciativa junto con el proceso de participación a realizar en este barrio con el compromiso de recoger sus necesidades en el presupuesto municipal estaban en el programa electoral del PSE-EE y nuestra presencia en el equipo de gobierno lo ha hecho posible.

Donibane eta Lezo arteko bidegorria, 50 etxebizitzak, gazteentzako alokairurako laguntzak, berdintasunaren eta ingurumenaren aldeko konpromisoa teknikarien kontrataazioaren bitartez edota hondakin bilketarako sistema aldaketa, besteak beste, kutsu sozialista duten egitasmoak dira.

Continuaremos sacando adelante nuevos proyectos y dando respuesta a los problemas diarios de los lezoarras, no tras la cortina de humo de la pancarta sino con responsabilidad.

LEZON ANTZERKIA 20 URTETAN ZEHAR




Kultura hitza entzutean lezoar askori Orratx Antzerki Taldea etorri dakioke burura, eta ez da gutxiagorako. Taldeak 20 urte bete ditu aurten eta, hori dela eta, ekainaren 9rako ospakizun ekitaldi berezi bat prestatzen ari dira: GAU FESTA.

Taldeak bi hamarkada daramatza antzerkiaren bitartez herriari alaitasuna ematen, izan ere, antzeztutako obra asko umorea eta kritika sozialaren arteko nahasketak dira. Baino, Lezon ez ezik, Gipuzkoako eta Euskal Herriko beste hainbat antzezlekutan ere ibiliak dira beren lana zabaltzen.

Al escuchar la palabra cultura, a muchas y muchos lezoarras les puede venir a la mente Orratx Antzerki Taldea y no es para menos. El grupo cumple este año su 20º aniversario y, por ello, están preparando una actuación especial para el 9 de junio: GAU FESTA.

El grupo lleva dos décadas transmitiendo alegría a la ciudadanía por medio de sus funciones, puesto que muchas de las obras que han representado son una mezcla entre humor y crítica social. Pero, además de en Lezo, durante estos años han actuado en diversos escenarios de Gipuzkoa y Euskal Herria.



20 urte denbora luzea da eta taldea osatu zenetik hona Lezo eta egoera bera asko aldatu dira. Esaterako, lehen entseguak haurtzaindegian egiten zituzten eta orain, ordea, Udalak eraberritu berri duen kultur lokala dute beren jardunarekin jarraitzeko espazio gisa.

Urte hauetan zehar bizipen ugari izan dituzte, baita kide desberdinak ere, baina, gaur egun, erreleboa hartuko duten herritarren zain daude. Egun, taldean kide berriak sartzea da erronka nagusia, hori baita egindako lanari jarraipena emateko, eta hemendik beste hainbat urte barru urteurren berri bat ospatu ahal izateko, giltzarria.

Gauzak horrela, urteurrenaren ospakizuna ate joka izanik, aukera paregabea da taldeko bi kiderekin elkartu eta solasaldi txiki bat izateko. Lierni Fresnedo eta Mertxe Larrea dira, hasieratik taldeko kideak.

Egunero ez dira 20 urte betetzen. Zein sentimendu dituzue bi hamarkada hauen ondoren?

Lierni Fresnedo: Alde batetik pozik sentitzen gara ez delako erraza horrelako antzerki talde bat aurrera eramatea hainbeste urtetan.

Mertxe Larrea: Kezka puntu bat ere badugu ikusten dugulako ez dela gazte jendea animatzen. Gazte batzuk sartuko balira.. Sartzen joan direnak ondo hartzituz eta gustura daude, baina ikasketak eta lana direla eta ez dira finkatzen. Berriak sartzea kostea egiten da, batez ere gizonak.

“Kezkatuta gaude ikusten dugulako ez dela gazte jenderik sartzen taldean”

Mertxe Larrea

Orratx Tiki haur taldea ere baduzue harrobi bezala. Gazteek interesa dute antzerkian?

L.F.: Leku gehientsuenetan gertatu ohi den modura, 13-14 urterekin beste interes batzuk sortzen zaizkie eta adin horretan antzerkiarekin mozten dute. Gero unibertsitatera joaten dira, batzuk kanpora. Hori dela eta, gutxi gorabehera 35 urte bitarteko hutsunea dago. Jende hori berreskuratzea zaila izaten da.

Hori da gure kezkarik handiena hemendik aurrera. Orain arte egindakoarekin oso pozik gaude, urtero ikuskizun berri bat eskaintzen dugu; taldeko jende multzo bat oso konprometituta gaude, bai antzerkiarekin baita herriarekin ere.

20 años son un largo periodo de tiempo y la situación y Lezo han cambiado mucho desde que se formó el grupo. Por ejemplo, el grupo realizaba los primeros ensayos en la guardería y ahora, en cambio, disponen del nuevo local cultural que el Ayuntamiento ha remodelado recientemente.

A lo largo de estos años han acumulado vivencias y el grupo ha tenido diferentes miembros. Pero, hoy día, se encuentran a la espera de nuevas personas dispuestas a coger el relevo. Su mayor desafío es, pues, conseguir caras nuevas, ya que esa es la clave para que su trabajo tenga continuidad.

Así las cosas, con la celebración del aniversario a la vuelta de la esquina, nos reunimos con dos integrantes del grupo para mantener con ellas una breve conversación. Se trata de Lierni Fresnedo y Mertxe Larrea, integrantes del grupo desde los comienzos.

Nola laburbilduko zenukete ibilbide luze hau?

L.F.: Zaila da, era guztietaiko ikuskizunak egin ditugu. Dario Forekin hasi ginen, umorea eta kritika soziala nahasten zituenez asko gustatzen zitzagun. Guk sortutako obrak antzeztu ditugu, beste batzuk euskararatu eta egokitu egin ditugu, pelikulak antzerkira egokitu ditugu... denetik egiteko aukera izan dugu eta zentzu horretan nahiko aberatsa izan da gure ibilbidea.

M.L.: Herriko ekitaldieta ere ibili gara: Lezo 800, gure 10. urteurrena, Trapujalerekin eta urtean zehar antolatzen diren ekitaldi desberdinietan ere parte hartu ohi dugu ahal dugun neurrian.

Hasierako kideetatik askok jarraitzen duzue?

L.F.: Hasiera-hasieratik 3 gaude, baina denbora





asko daramaten beste hainbat badira. Orain guztira 8 gara.

M.L.: Esan genezake 5 edo 6 mantendu garela hasieratik. 20. urteurreneko ekitaldian taldekoen arazoak izan ditugun, izan ere, ostiral arratsaldeetan egiten dituzte entseguak eta askotan Gezala okupatua egon ohi da ordutegi horretan. Bizpahiru urte ibili gara toki batek bestera haurren entseguak egin ahal izateko eta, zentzu horretan, lokal bat izatea guretzat eskertzeko da. Nahiz eta gure eragozpenak ere izan. Lehenbizi, zutabe batzuk daude erdian, baina estrukturalak direnez ezin ziren kendu. Horrek horrela izan behar zuen. Baina, lehenengoz han elkartu ginenean esan ziguten planoan proposamen bat egotean lokala erabiliko genuen talde guztiak elkartuko gintzutela iritziak eskatzeko, baina hori ez zen egin. Hurrengo bilera giltzak emateko izan zen, hara joan eta lokal berrituta erakutsi ziguten.

Urtero antzezlan bat prestatzen duzue. Nolakoa da erabakitzeko prozesua?

L.F.: Orain, esku artean duguna amaitu behar dugu eta hori amaitzean uda hausnarketarako tartea izaten da. Irailean hasten gara hurrengo urtean zein antzerki prestatu erabakitzten. Lehenengo bilera beti izaten da bakoitzak bere burua nola ikusten duen partekatzeko, zer egitea gustatuko litzaiokeen edo zer ez; norberak buruan dituen ideiak gainontzekoekin partekatzen ditugu. Hori garrantzitsua da gure taldean, izan ere, amateurrak gara eta bakoitzaren beharretara moldatzen gara.

Lehenengo entseguak haurtzaindegian egiten omen zenituzten eta, orain, kultur lokal berri bat utzi dizue Udalak. Aldaketa badago, baina zein beste tokitan ibili zarete urte hauten?

L.F.: Hasi ginenean Gezala Auditoriuma eraiki gabe zegoen eta emanaldiak ere eskolako gimnasioan egiten genituen. Izugarrizko oihartzuna zegoen, soinu aldetik desastre hutsa zen. Baina, poliki-poliki, herrian behar hori sortzen hasi zen eta, orduan, Gezala iritsi zen.

Horrela, Gezalara pasa ginen eta guretzat luxu bat da bertan lan egitea. Nahiz eta, ttikien taldekoen arazoak izan ditugun, izan ere, ostiral arratsaldeetan egiten dituzte entseguak eta askotan Gezala okupatua egon ohi da ordutegi horretan. Bizpahiru urte ibili gara toki batek bestera haurren entseguak egin ahal izateko eta, zentzu horretan, lokal bat izatea guretzat eskertzeko da. Nahiz eta gure eragozpenak ere izan. Lehenbizi, zutabe batzuk daude erdian, baina estrukturalak direnez ezin ziren kendu. Horrek horrela izan behar zuen. Baina, lehenengoz han elkartu ginenean esan ziguten planoan proposamen bat egotean lokala erabiliko genuen talde guztiak elkartuko gintzutela iritziak eskatzeko, baina hori ez zen egin. Hurrengo bilera giltzak emateko izan zen, hara joan eta lokal berrituta erakutsi ziguten.

M.L.: Aldaketa batzuk egiteko eskatu genizkien eta txukundu dutela esan daiteke, konponduko gara.

Hasiak zarete bertan entseguen?

L.F.: Haurrek estreinatu zuten eta gu ere hasiak gara. Taldean ikusten egon ginen eta orain azken ukituak eman behar dizkiogu gurera egokitzeko.

“Jendea antzerkira joan beharrean antzerkia jendeari hurbiltzeko ekitaldia izango da”


Lierni Fresnedo

Zer aurreratu dezakezue 20. urteurrenaren harira ekainaren 9an egingo duzuen Gau festaz?

L.F.: Markesanen izango da eta espero dugu euririk ez egitea. Leku oso polita da, 10. urteurrena ere bertan egin genuen eta oso polita izan zen. Mahaitxoak eta kandelak jartzen ditugu giroa goxatzeko, baita argiak, eszenatokia eta tabernatxo bat ere. Ikuskizuna 22:00etan hasiko da, baina, segurueneik, 30-45 minuti lehenago zuzenean musika egongo da jendea gerturatzen eta gau giroan nahasten joateko. Gero ikuskizuna hasiko da eta egin ditugun obren esketxak hartuta obra txiki bat egingo dugu. Bidai bat izango da, jendeari erakusteko modu dibertigarrian antzerki munduan egin dugun lana.

Herritar batzuk Gezala Auditoriumera hurbiltzen dira, baina ez gehientsuenak. Beraz, jendea antzerkira joan beharrean antzerkia jendeari hurbiltzeko ekitaldi bat izango da, hau da, kultura herrira plazaratzea.

Gozatu jaiak!



udaberri KULTURALA

MAIATZA MAYO

- 11 Etxean goxo (Txotxongilo-antzerkia)
Rosa Martínez & Co.
- 13 Izar (Antzerkia)
Marie de Jongh
- 18-20 Mendekoste jaiak
- 29 ¡Gracias, Jeeves! (Literatur solasaldia)
P.G. Wodehouse

EKAINA JUNIO

- 9 Gau festa: Orratx 20 urte (Antzerkia)
Orratx Antzerki Taldea
- 15 Bagatelaren armak (Haur emanaldia)
Orratx txiki
- 22 Gartxot (Zinea)
Asisko Urmeneta zuzendariarekin kolokioa
- 23 San Juan bezperako suak eta dantzak

UDAN JOSTATZERA 2018

LEZOKO UDALEKU IREKIA COLONIAS DE VERANO

Izen emate epea maiatzaren 21etik 31ra bitartean egongo da zabalik. Udalekuak uztailaren 2tik 27ra izango dira.

Jolasak, dantzak, kantak, antzerkiak eta beste hainbat ekintza egiteko aukera, giro euskaldun eta atseginean!

El periodo de matriculación estará abierto del 21 al 31 de mayo. Las colonias tendrán lugar del 2 al 27 de julio.

Juegos, excursiones, fiestas, bailes y muchas otras actividades, en un ambiente euskaldun y agradable!



Errenta 2017 Egin aitorpena euskaraz

2016an aitorpenen %18,7 euskaraz, 2017an zenbat?

Lezon natural



@LezokoUdala



@LezoUdala

DESCARGATU LEZO ESKURA JARRIKO
DIZUN APP-A

DESCARGA LA APP PARA CONOCER
TODA LA PROGRAMACIÓN

